

# Herritarren Segurtasunerako Legeko jarduerak

## Tratamenduaren arduraduna

Segurtasuneko Sailburuordetza – Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroa (EPDPZ),  
Segurtasun Saila  
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba  
Telefona: 945 018 000  
Web-orria: <http://euskadi.eus>

## Datuak babesteko ordezkaria

Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroa (EPDPZ)  
Larrauri Mendotxe Bidea 18. 48950.- Erandio, Bizkaia  
[dpd-dbo@ertzaintza.eus](mailto:dpd-dbo@ertzaintza.eus)

## Tratamenduaren helburua

Herritarren Segurtasuna Babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Legetik eratorritako prozedurak kudeatzea, horietako txostenak eta espedienteak izapidetzea, bai eta araudiak eskatutako agirien erregistroak jasotzea ere, honako arlo hauetan:

- Segurtasun publikoa eta pribatua babestea.
- Manifestatzeko eta biltzeko eskubidea: jakinarazpenak, jarduketak eta polizia-ikerketak.
- Segurtasun publikorako garrantzizkoak diren bestelako jarduerak: ostatu-enpresak, motordun ibilgailuak alokatzea edo desegitea, bitxien eta metal preziatuen merkataritza eta birziklatzea; metalezko hondakinekin egindako eragiketak eta txatarraren eta hondakinen merkataritza.

## Oinarri juridikoa

- Tratamendua beharrezkoa izatea aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko.
- Tratamendua beharrezkoa izatea interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- Maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoan, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoan, aurreikusitako helburuak betetzeko tratamendua.
- 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu batagina onartzen duena.
- 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa.
- 9/1999 Lege Organikoa, apirilaren 21ekoa, Biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa aldatzen duena.

## Gordetzeko epea

Datuak jasotzea eragin zuten helburuak bete arte behar den denboran. Orokorrean, datuak ezabatzeke gehieneko epea hogeitau urtekoa izango da, tartean honako egoera hauetako bat gertatu ezean: ikerketak irekita egotea edo preskribatu gabeko delituak egotea, zigorraren exekuzioa amaitu gabe egotea, berrerortzea, biktimak babestu beharra edo arrazoitutako bestelako egoerak (7/2021 LOren 8. art.). Segurtasun publikoaren arloan garrantzitsuak diren jardueretarako ezarritako dokumentu-erregistroen –erregistro liburuen– kasuan, horiei buruzko araudian aurreikusitako epeak hartuko dira kontuan. Era berean, artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

## Interesdunen kategoriak

- Herritarrak.
- Eraginpeko eta zigortutako pertsonak.
- Eskatzaileak, komunikatzaileak eta harremanetarako pertsonak.
- Jarduera garrantzitsuekin zerikusia duten establezimenduen jabeak, errentariak edo arduradunak.
- Ertzainak.
- Udaltzainak.

## Hartzaileen kategoriak (Datuak jakinaraztea)

- Segurtasun Indar eta Kidegoak.
- Epaitegiak, Auzitegiak eta Ministerio Fiskala.
- Herri-ogasuna eta zerga-administrazioa zigorrak exekutatzeko.
- Legeak baimentzen duenean, eskuduna den beste edozein erakunde.

## Datuen kategoriak

- Identifikazio-datuak.
- Erakundeei eta elkarteei buruzko datuak; horien artean datu bereziak ere egon litezke, 7/2021 LOren 13. artikulua araberak: talde politikoa edo sindikatua.
- Enpleguari buruzko datuak: jarduera profesionala.
- Jarduketei, prozedurei eta arau-hauste administratiboari buruzko datuak.

## Nazioarteko transferentziak

Ez da aurreikusten.

## Segurtasun-neurriak

Ezarririk segurtasun-neurriak bat datozen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuaren, Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duenaren, II. Eranskinean (Segurtasun-neurriak) aurreikusitakoekin.